

Irulitxa fanfarrea

Frantziako Condom herrian iaz lortutako sariak ilusioz bete dituzte Irulitxa fanfarreko musikariak. Urritik hona 16 abesti ikasi behar izan dituzte, lehen aldiz Donostiako danborradan parte hartu ahal izateko: urtarrilaren 20an, 13.30ean eta 17.30ean. Eta jarraian... lanera!

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Nahiz eta aurretik ere elkarrekin jotzen genuen, taldea 1996ko maiatzaren 8an sortu zen.

- Zenbat kide zarete?

Momentu honetan 30 lagunek osatzen dugu Irulitxa. Horiez gain, 15 bat kolaboratzaile ditugu, hainbat lekutatik etorritakoak: Zornotza, Gasteiz, Logroño, Palentzia... Azken 9 urteotan gure zuzendaria den Gorka Garcia ere gasteiztarra da. Hasieratik gorabeherak izan ditugu parte hartzaile kopuruarekin, baina beti onerako: gero eta musikari gehiago gara eta pozik gaude. Adinari dagokionez, 14 eta 67 urte bitartean gaude denok.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

2011n taldea sendotu nahi dugu, kanpoan zein Ermuan ere. Horrez gain, autofinantzaketa lortu nahi dugu. Orain



arte ohiko kuota eta ordainketa bereziki ordaintzen ditugu gastu denak. Iaz Frantziako Condom herrian egindako jaialdian lortutako hiru sariak ate asko zabaldu dizkigute, baina orain merkataritza-agenteekin lan egin eta kontratuak lortu behar ditugu. Horiei esker, musika irakasleak kontratatu ahal izango ditugu, esaterako.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Astearte eta ostegunetan entseatzeko dugu, 19.00etatik 22.00etara, Miguel de Unamunon laga diguten lokalean. Beharrezkoa bada, larunbatetan ere entseatzeko dugu.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtero 5 ekitalditan hartzen dugu parte: Inauterietan, Santixauetan (aurkezpenean, Santa Ana egunean eta agurrarean) eta 'Kalean' kale musika taldeen topaketan. Aurten hasita gainera, erregeen kabalgatan joko dugu urtero.

- Aurten irteera berezirik egingo duzue?

Bai, Frantzian 3 saio eskainiko ditugu: martxoan Toulouse ondoan dagoen Albi herriko inauterietan joko dugu eta uztailaren 25ean eta abuztuaren 5ean Gasteizen izango gara. Horrez gain, inauterietan Alemanian jotzeko aukera dugu, Donostia ordezkatzeko; Monzón de Campos-en (Palentzia) eta Amañako danborradan, baina azken horiek lotu barik daude.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

www.irulitxa.com web orrian taldeari buruzko informazio guztia dago. Era berean, telefonoz (600 435 000 edo 691 472 429), posta arruntez (46 posta-kutxa) edo posta-elektronikoz (irulitxa@yahoo.es) jar daiteke gurekin harremanetan. Interesa duena gure entsegetara ere etor daiteke.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERYECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78